**ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIAREN KARATULA, BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN KORRESPONDENTZIA BANATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO. 3303. ZENBAKIKO ESPEDIENTEA.**

| | |
|---|---|
| **Erregulazio harmonizatuko kontratua** | ☒BAI ☐EZ |
| **Espedientea izapidetzea** | ☒Arrunta, ☐Presakoa, ☐ Larrialdia, ☐Aurreratua |
| **Mota** | ☒ Irekia<br>☐ Irekia, sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.)<br>☐ Irekia, super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.) |

| **A.- ESLEITZEKO AHALA** | |
|---|---|
| **1.- Esleitzeko ahala:** | Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa |
| **2.- Kontratazio-organoa:** | ☒ Zuzendaritza Batzordea<br>☐ Presidentea<br>☐ Gerentea |
| **3.- Kontratuaren arduraduna** | Iker Basagoiti Larruzea |
| **4.- Kontratazio Zuzendariordetzako harremanetarako datuak::** | contratacion@consorciodeaguas.eus<br>Kontsulta administratiboak/teknikoak:Telf.94 4873100 |
| **5.- Kontratatzailearen profila:** | www.consorciodeaguas.eus<br>www.contratacion.euskadi.eus |

**B.- KONTRATUAREN XEDEA**

**1.-Kontratuaren xedea**: BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN POSTA-ZERBITZUAK KONTRATATZEA

**2.-Ase beharreko premiak**: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, beste erakunde batzuekin eta 500.000 erabiltzaile baino gehiagorekin dituen harremanetan, posta-banaketako hainbat zerbitzu mota erabili behar ditu, hala nola korrespondentzia arrunta edo urgentea, naziokoa zein nazioartekoa, paketeria, telegramak, administrazio-jakinarazpenak eta bestelakoak, horiek guztiak publizitatearen eta lizitazioaren xede izanik.

**3.-Lotetan banatzea**: ☒ Bai ☐ Ez

**1.LOTEA: 3.178.500,00 €**

- Gutun eta posta-txartel arruntak (nazionalak eta nazioartekoak).
- Gutun ziurtatuak (nazionalak eta nazioartekoak).
- Presako gutun arruntak.
- Arestian aipatutako bidalketei lotutako zerbitzu gehigarriak.

**2.LOTEA: 434.700,00 €**

- Estatuko administrazio-jakinarazpenak.
- Posta-paketeak (nazionalak eta nazioartekoak).
- Telegramak.
- Helmugan frankeatzeko gutun arruntak.
- Posta-atalak kontratatzea.
- Posta-atalen kontratazioak (bai helmugan frankeatzekoak entregatzeko, bai beste bidalketa batzuetarako) barneen hartuko du posta-atal bakoitzean jasotako bidalketak egunero entregatzea zehaztutako lekuan (gaur egun, Bilboko posta-atala Bilboko San Vicente kaleko 8. zenbakian

## B.- KONTRATUAREN XEDEA

entregatzen da, eta Barakaldoko posta-atala Xupera enpresaren bulegoan, Barakaldoko Luis de Castresana kaleko 6. zenbakian).

- Arestian aipatutako bidalketei lotutako zerbitzu gehigarriak.
- BBUPk bidalitako dokumentu elektronikoetatik abiatuta, entrega elektronikorako, dokumentuak inprimatzea, posta-operadorean prestatzea eta gordetzea eta jakinarazpenak eta entrega-probak formatuan egiteko fitxategiak eta identifikatzaileak sortzea.

**4.-CPV:**

CPV kodea: 64110000-0
Deskribapena: posta-zerbitzuak

**5.-Aldaerak edo alternatibak jasotzeko aukera:**

☐ BAI ☒ EZ

**6.-Izaera juridikoa**

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

## C.-KONTRATUAREN PREZIOA

| | |
|---|---|
| **1.-Lizitazio-aurrekontua**<br>(BEZa kanpo) | **HIRU MILIOI SEIEHUN ETA HAMAHIRU MILA ETA BERREHUN EURO (3.613.200,00 €), BEZa KANPO**<br>- **1.LOTEA: 3.178.500,00 €**<br>- **2.LOTEA: 434.700,00 €** |

**2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 7.226.400,00 euro**

Loteak: ☒ BAI ☐ EZ

Loteen balio zenbatetsia:

- 1.Lotea: 6.357.000,00 €
- 2.Lotea: 869.400,00 €

**3.-Prezioa zehazteko sistema**:

☐ Oroharreko prezioa ☒ Prezio unitarioak

**4.-Urteko aurrekontuak eta aurrekontu-izendapena**:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa honako hauek dira: 925.01 22202

- URTEA: 2026 150.000,00 €
- URTEA: 2027 1.199.400,00 €
- URTEA: 2028 1.204.400,00 €
- URTEA: 2029 1.054.400,00 €
- URTEA: 2030 5.000,00 €

**5.-Prezioern berrikuspena**:

☐ BAI ☒ EZ

**6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea**:

☐ BAI ☒ EZ

**7.-Ordaintzeko modua**: arrunta, hileko ziurtagiriaren bidez.

| C.-KONTRATUAREN PREZIOA |
|---|
| **8.- Konturako abonuak: ez da aplikagarria** |

| D.-KONTRATUAREN EPEALDIA |
|---|
| **1.-Iraupen osoa: HIRU (3) URTE.** |
| **2.-Epe partzialak**.<br>☐ BAI ☒ EZ |
| **3.-Luzapena**<br>☒ BAI ☐ EZ 2 LUZAPEN, URTE BATEKOAK (1) |
| **4.-Berme-epea**: kontratuaren iraupena |
| **5.-Kontratua betearazteko lekua**: BBUPren instalazioak |
| **6.-Harrera partziala egin dakiekeen lanak** ☐ BAI ☒ EZ. |

| E.- BERMEAK | |
|---|---|
| ☒Behin betiko bermea: % 5 | Zenbatekoa: esleipena |
| ☐ Berme osagarria: | Zenbatekoa: |

| F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA |
|---|
| Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetatik negozio-bolumen handiena duenari dagokionez, kontratuaren batez besteko urterokoa izan beharko da, behin gutxienez. (1. lotea: 1.059.500,00 € eta 2. lotea: 144.900,00 €) |

**G.-GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA**

- Korrespondentzia banatzeko lanak egiten izandako esperientzia, azken bost urteotatik exekuzio handieneko urtean zehar metatutako zenbatekoa 741.650,00 eurokoa edo hortik gorakoa bada 1. lotearen kasuan eta 101.430,00 eurotik gorakoa 2. lotearen kasuan; aurrekontuaren % 70aren baliokidea gastuaren gehieneko aurrekontuaren batez besteko urterokoaren kasuan.

  Honela egiaztatu beharko da: agiri honen eranskinean ageri den ereduaren arabera, azken bost urteotan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda; bertan, zerbitzuon edo lanon zenbatekoa, datak eta hartzaile publikoa edo pribatua jasoko dira. Hartzailea sektore publikoko entitate bat denean, organo eskudunak igorritako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzuak edo lanak, edo, hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark igorritako ziurtagiri baten bidez, edo, azken ziurtagiri hori egon ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez.

- Era berean, baldintza teknikoen agiriaren hirugarren klausulak 43/2010 Legeak ezarritako betekizun hau jaso du hitzez hitz:

  Enpresa lizitatzaileek posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko 43/2010 Legearen IV. tituluan zehaztutako posta-zerbitzuak emateko araubide orokorra beteko dute.

  Hona hemen betekizunak:

  1. Posta-zerbitzu unibertsalaren eremuko posta-zerbitzuak emateko administrazio-baimen berezia izatea.
  2. Posta Sektoreko Batzorde Nazionalean erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztea, 43/2010 Legearen IV. tituluko II. kapituluan xedatutako baldintzetan, posta-zerbitzu unibertsalaren eremuan sartuta ez dauden posta-zerbitzuak emateko. Zehazki, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalean aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpena behar izango da, maiatzaren 7ko FOM/845/2015 Aginduaren bidez onetsitako ereduari jarraiki. Agindu horren bidez, posta-zerbitzu unibertsalaren eremuan sartuta ez dauden posta-

## F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

zerbitzuak ematea gaitzen duen erantzukizunpeko adierazpenaren eredua onetsi da (BOE, 112. zk., 2015eko maiatzaren 11koa).

3. Posta Sektoreko Batzorde Nazionalaren mendeko posta-zerbitzuak ematen dituzten enpresen erregistro orokorrean inskribatuta egotea dioen ziurtagiria, eguneratuta, administrazio-egoerari, urtero berritzeari, altei, bajei eta aldaketei buruzkoa.

Ziurtagiri horiek nahitaezko baldintza izango dira lizitazioan parte hartzeko, salbu eta posta-zerbitzu unibertsala emateko izendatutako operadoreaz ari bagara, 43/2010 Legearen lehenengo xedapen gehigarriarekin bat etorriz.

## ENPRESA-SAILKAPENA

Eskatutako kaudimenaren ordez, honako sailkapen hau egin ahal izango da:

**ENPRESA-SAILKAPENA** ☒ Bai, Fakultatiboa ☐ Ez

Taldea, azpitaldea eta kategoria galdagarriak: R – 9 - D

## H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.-Lehenengo gutun-azala: erantzukizunpeko adierazpena.

2.-Bigarren gutun-azala: balio-judizioaren pean jarritako irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.-Hirugarren gutun-azala: automatikoki kuantifikatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa.

## BALIO-JUDIZIOAREN PEAN JARRITAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Irizpide teknikoak baloratzeko beharrezkoa dena. Irizpide horiek bereizita sartu beharko dira, balorazio hori egin ahal izateko; besteak beste, eskaintza teknikotik kanpo uztea dakarten (bakarrik betetzen ez direnean) alderdiak egiaztatzeko irizpideak.

## AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatutako **proposamen ekonomikoa**, halabeharrez I. eranskineko ereduari jarraiki idatzia, eskainitako prezioan zerga guztiak sartuta, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

a) Bidalketa mota bakoitzeko prezio unitarioen eta deskontuen zerrenda, eskaini behar dituzten operadore unibertsalaren tarifa ofizialei dagokienez, prezio horiek kalkulatutako unitateen gainean aplikatuz eskaintza zehaztu ahal izateko, 1. eranskinean 1. loterako eta 2. eranskinean 2. loterako jasotakoaren arabera. Eskaintza ekonomikoa zein den kalkulatzeko, 2026ko tarifa ofizialak hartuko dira kontuan.

1. lotean eta 2. lotean, eskainitako deskontuak desberdinak izan daitezke bidalketa-tipologia bakoitzean, eta ez da gutxieneko deskonturik ezarriko bakoitzarentzat.

- 1. lotean, urteko eskaintza ekonomikoa ezin izango da 1.059.500,00 €-tik gorakoa izan.
- 2. lotean, urteko eskaintza ekonomikoa ezin izango da 144.900,00 €-tik gorakoa izan.

## AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Agiri honetako eranskin bakoitzean aipatutako tipologia bakoitzean egin beharreko bidalketen kopurua, beraz, gutxi gorabeherakoa da, eta lote bakoitzaren eskaintza ekonomiko onuragarriena zehazteko erabiliko da.

Behin kontratua esleituta eta zerbitzua ematen hasita, esleipendunak ezin izango dio inolako erreklamaziorik egin BBUPri tipologia bakoitzeko bidalketen kopuru handiagoa edo txikiagoa esleitzeagatik. Bidalketa horiek precio unitarioetan eta eskainitako tarifa ofizialarekiko-- deskontu unitarioetan gauzatu beharko ditu--, betiere SPKLn ezarritako mugen arabera.

Ondorioz, kontratuaren betetze-maila desberdina izan daiteke, bai beherantz, bai gorantz, eskainitako deskontuak gehieneko prezioen gainean aplikatzearen ondoriozko zenbatekoetatik-- eta kontratuaren gehieneko balioa zehazteko erabilitako unitateen kopuruari eskainitako prezio unitarioetatik--.

## I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: kontratatzailearen profilean adierazitakoa.
2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (AKPPren 13. klausulan xedatutakoaz bestelakoa bada bakarrik)::
3.- Eskaintzak bide elektronikoz aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3

## J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

☒Kontratazio-mahaia

Mahaiburua:
Ekaitz Mentxaka Corral.

Mahaikideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga
Xabier Orue Moro.
Itziar Zarate Urrutia.
Gerardo Latorre Pedret.
Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret

## K.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

**1.- Esleitzeko irizpideak**:

Hauek dira lehiaketa esleitzeko oinarri izan behar duten irizpideak, baloratu beharreko alderdi gisa:

**AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU**

Irizpide honi gehienez 50 puntu emango zaizkio.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren bajaren ehunekoaren (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax ........................................................ 50 puntu
(Bmax + BM) / 2 .......................................... 48 puntu

**K.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK**

BM............................................................ 47 puntu
0,8 x BM .................................................... 46 puntu
0,6 x BM .................................................... 44 puntu
Lizitazioaren aurrekontua................................ 0 puntu

Esanahiak:

- Bi: eskaintzaren bajaren ehunekoa, lizitazioaren aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldearen emaitza, zati lizitazioaren aurrekontua, ehunekotan adierazita.
- Bmax: gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik merkeenari dagokiona
- BM: batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzaile bakoitzaren bajaren ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Onartutako gainerako eskaintzek puntuazio bat izango dute, arestian adierazitako puntuen banaketa linealki interpolatzearen ondorioz.
Horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako honi dagokiona da:

0 < Bi <= 0,6 x BM bada,

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

0,6 x BM < Bi <= 0,8 x BM bada,

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

0,8 x BM < Bi <= BM bada,

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

BM < Bi <= (BM + Bmax) / 2 bada,

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

(BM + Bmax) / 2 < Bi <= Bmax bada,

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BM - Bmax)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

**BALIO-JUDIZIOAREN PEAN JARRITAKO IRIZPIDEAK:**

**1.LOTEA: 50 puntu**

1. Zerbitzua emateko metodologiaren proposamena **10 puntu**
   a. Giza baliabideak eta teknikariak zerbitzua emateko egokitzea

**K.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK**

   b. Bidalketen eta albaranen jarraipena egiteko eta fakturatzeko sistema.
   c. Kudeatutako bidalketen txostenen eredua, hilekoa, urtekoa eta abar.
   d. Ziurtagiriak entregatzeko zerbitzua emateko bulego-sarea.

2. Zerbitzua emateko konpromisoa **10 puntu**
   a. Entrega-epeak neurtzeko sistema, entrega hori egiaztatzeko modua, eta abar
   b. Entregatzeko epeei buruzko konpromisoak
3. Erreklamazioen eta kexen kudeaketa **10 puntu**
4. Itzulitako bidalketen tratamendua eta jarraipena. **20 puntu**

**2.LOTEA: 50 puntos**

1) Posta-sarearen edukiera **25 puntu**
   a) Banaketa-sare propioak Bizkaian eta Estatuko gainerako lurraldeetan duen estaldura-maila.
   b) Jendearen arretarako bulegoak, kopurua, ordutegia, kokapena...
   c) Posta-bidalketen tratamendu-zentroa, kokapena eta zenbakia
   d) Administrazio-jakinarazpenetarako prozedura eta bermeak, honako kasu hauetan: entrega eta harrera, absentzia, uko egitea, helbide ezezaguna, heriotza, eta abar.
2) Zerbitzua emateko kalitate-bermeak 10 **puntu**
   a) Entrega-epeak neurtzeko sistema, entrega hori egiaztatzeko modua, eta abar.
   b) Entregatzeko epeei buruzko konpromisoak
   c) Posta-entregen itzulketak (konpromisoak, epeak...)
3) Zerbitzua emateko metodologiaren proposamena **5 puntu**
   a) Giza baliabideak eta teknikariak zerbitzua emateko egokitzea
   b) idalketen eta albaranen jarraipena egiteko eta fakturatzeko sistema.
   c) Kudeatutako bidalketen txostenen eredua, hilekoa, urtekoa, eta abar.
4) Erreklamazioen eta kexen kudeaketa **5 puntu**
5) Entrega-proba elektronikoa duten administrazio-jakinarazpenak sortzeko, inprimatzeko eta horien jarraipena egiteko zerbitzu-proposamena. **5 puntu**

**2.- Berdinketa hausteko irizpideak**:
Eskaintza bat baino gehiagoren arteko berdinketa ebazteko, honako irizpide sozial hauek aplikatuko dira, ordenan, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den uneari dagokionez:
a) Enpresa bakoitzeko plantillan, desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena; berdintasuna badago, plantillan desgaitasuna duten langile finkoen laneratzeko programetan dauden langileen kopuru handiena duena lehenetsiko da.
b) Aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena enpresa bakoitzeko plantillan.
c) Emakume enplegatuen ehuneko handiena enpresa bakoitzeko plantillan.
d) Zozketa, baldin eta aurreko irizpideak aplikatu eta gero berdinketa hautsi ez bada.

**3.- Eskaintza anormalki baxutzat jotzeko irizpideak**:
Eskaintza bat anormalki baxutzat joko da honako kasu hauetan:
- Lizitatzaile bakarra aurkezten bada eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino txikiagoa bada, ehuneko 25 unitate baino gehiagotan.
- Bi lizitatzaile aurkezten direnean, beste eskaintza baino ehuneko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzaile aurkezten direnean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino txikiagoak direnak, ehuneko 10 unitate baino gehiagotan. Hala ere, batezbesteko hori zenbatzeko, diru-kopuru handieneko eskaintza baztertuko da, baldin eta batezbesteko hori baino ehuneko 10 unitate handiagoa bada gutxienez, ausarkeria-atalase berria ezartzeko soilik, eta ez dio inola ere eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurriz kanpokotzat joko da ehuneko 25 unitate baino gehiagoko baja.

## K.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

- Lau lizitatzaile edo gehiago aurkezten direnean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino txikiagoak direnak, ehuneko 10 unitate baino gehiagotan. Hala ere, haien artean batezbesteko hori baino ehuneko 10 unitate gehiago dituzten eskaintzak badaude, adierazitako kasuan ez dauden eskaintzen batezbestekoa soilik kalkulatuko da ausarkeria-atalase berria ezartzeko, eta ez dio inola ere eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hiru baino txikiagoa bada, batezbesteko berria diru-kopuru txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatuko da.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak aurkeztu dituztenean, anormaltasun-presuntzioa duten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatze aldera, baxuena hartuko da kontuan, albo batera utzita eskaintza bakarka aurkeztu izana edo taldekoak ez diren beste enpresa batekin edo batzuekin batera aurkeztu izana, aldi baterako enpresa-elkarte bat sortuta.

**4.- Lizitatzaileari hautaketa-prozesuarekin jarraitzeko eskatzen zaion gutxieneko puntuazio-atalasea**:

Ez da aplikagarria

## L.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK

Preskripzio tekniko partikularren agirian adierazitakoak.

## M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Preskripzio tekniko partikularren agirian adierazitako kasuak eta ekintzak.

Baldintza teknikoen agiriaren hogeita bigarren klausula transkribatu da, egindako lanengatik ziurtagiriak onestean kontuan hartu beharreko zigorrak ezartzen dituena.

Hargatik eragotzi gabe kasu bakoitzean bidezkoa izan daitekeen erantzukizuna, baldintza-agiri honetan ezarritakoa eta posta-zerbitzuei buruzko araudian ezarritakoa betetzen ez den kasuetan, dagokion organismo ofizialak zehaztutako zigorrak aplikatuko dira.

Nolanahi ere, esleipendunak konpromisoa hartzen du Ur Partzuergoari kalte-ordaina emateko, ziurtagiritzat edo erregistratutzat jotzen dituen objektuen gorabeherengatik eta galerengatik, bai eta ezarritako ordutegietan korrespondentzia jaso izanagatik ere. Gutxienez, eta eskaintzarik onena izan ezean, zenbateko hauek ordainduko ditu:

- Objektu ziurtatu edo erregistratu bat galtzeagatik: ezaugarri bereko 10 bidalketaren kostuaren baliokidea.
- Presako bidalketa bat epez kanpo entregatzeagatik: zenbatekoa itzultzea
- Ezarritako puntuan eta orduan korrespondentzia jaso ez den egun bakoitzeko:
    - Tokiko gutun ziurtatuaren kontzeptuaren 50 unitateren baliokidea, 20 gramo normalizaturaino.

Lizitatzaileak bere eskaintzan zehaztu beharko du zein kalte-ordainetarako konpromisoa hartzen duen, eta alderdi hori bere eskaintza teknikoaren azterketan baloratuko da.

Kalte-ordainen ordainketa, bai eta bidalketen entrega atzeratzearen ondorio ekonomikoena ere, horien zenbatekoa deskontatuz egingo da, gorabehera ebatzi eta hurrengo hileko fakturetan.

| M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK |
| --- |
| Paragrafo honetan aipatzen diren kalte-ordainak elkarren segidako bi hilabetez ezartzen badira, Partzuergoak kontratua deuseztatu ahal izango du, eta esleipendunak kontratua behar bezala betetzeagatik ezarri zaion bermea galduko du. |

| N.- ESLEIPENDUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA |
| --- |
| Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua edukitzearen egiaztagiria |

## Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

**Zein baldintzatan egin ahal izango den**

Kontuan hartu behar da 2028ko urtarrilaren 1etik aurrera, kontratua betearazten den bitartean prezioak Correosek onetsitako tarifen arabera eguneratuko direla. Horren ondorioz, unitateak benetan zenbatetsitako unitateetara ez iritsi arren, prezioen igoerak (horren bilakaera ezin da jakin) kontratuaren gehieneko balioa agortzea eragin lezake.

**Aldaketaren irismena**

Aldaketaren ehunekoa kalkulatzeko, kontuan hartuko da, batetik, 1. eranskineko taularen arabera kalkulatutako kontratuaren gehieneko balioaren eta, bestetik, 1. eranskinean adierazitako unitateei kasuan kasuko urteko tarifa ofizialak aplikatuz gero ateratako emaitzaren arteko aldea. Eragiketa horretan lortutako ehunekoa kontratuaren gehieneko balioa eguneratzeko erabiliko da.

**Gehienez eragin diezaiokeen kontratuaren prezioaren ehunekoa**

Aldaketa hori gehienez ere % 20koa izan daiteke, SPKLren hogeita hamargarren xedapen gehigarriaren araberako unitate-gehikuntzagatik eta zerbitzu publikoko betebeharren araubidepean emandako posta-zerbitzuen prezioen aldaketengatik gerta daitezkeen aldaketen arabera.

## O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒Hasierako ekarpenaren betebeharra

☐Azpikontratazioaren mugak

Azpikontratatutako enpresak ez badu azpikontratazioaren xede den kontratuaren zerbitzua betetzeko administrazio-baimenik, ez da azpikontrataziorik baimenduko. Kasu horretan, posta-zerbitzuak ematen dituzten enpresen erregistro orokorrean indarrean dauden inskripzioak, azpikontratatutako zerbitzu motarekin bat etorriz eskatzen diren ataletan.

| P.- SUBROGAZIOA |
| --- |
| Ez |

## Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI ☐ EZ

### KONTRATUA BETEARAZI BITARTEAN EGONGO DIREN BALDINTZAK

2026 eta 2027 aldietarako zerbitzuak emateko, esleipendunek 2026ko tarifa ofizialen gainean eskainitako deskontuak aplikatuz ateratako zenbatekoak hartuko dira kontuan. Hortaz, posta-zerbitzu unibertsalaren operadoreak onetsitako prezioen araberako eguneratzea 2028ko urtarrilaren 1etik aurrera egingo da.

Entrega elektronikoko proben fitxategiak eta identifikatzaileak sortzearekin, dokumentuak inprimatzearekin, posta-operadorean prestatzearekin eta gordetzearekin eta formatu elektronikoan

jakinarazpenen eta entrega-proben egoera kontsultatzearekin lotutako zerbitzuak emateko eskaintzen diren prezio unitarioak ez dira kontratuan zehar eguneratuko, SPKLk xedatutakoa salbu.

- Exekuziorako baldintzak: era berean, Partzuergoaren eremu geografikoan bezeroen arretarako bulego batzuk izateko betebeharra ezarri da, baldintza teknikoen agiriaren hamabigarren klausulan ezarritakoaren arabera. Klausula horretatik honako eduki hau atera da:

Aurreko paragrafoan aipatu den bulego-sareari erreparatuz, Ur Partzuergoaren bezeroei emandako zerbitzuan hurbiltasuna bermatzeko asmoz, esleipendunak honako hauek izan beharko ditu gutxienez:

**1. lotea:**

Bi bulego Bilbo udalerrian, geografikoki behar bezala banatuta.

Una oficina en cada uno de los siguientes municipios:

- Barakaldo
- Getxo
- Portugalete
- Mungia
- Durango
- Balmaseda o Zalla
- Lekeitio u Ondarroa
- Erandio u otra ubicación en Txorierri

**2.lotea:**

Posta-zerbitzua emateko bulego bat Bizkaiko Lurralde Historikoan 3000 biztanletik gorakoak diren udalerri guztietan, Donostian eta Gasteizen.

Bi hilabeteko epean baldintza hori bete ezean, BBUPk kontratua deuseztatu ahal izango du, eta esleipendunak galdu egingo du kontratua zintzoki betetzeagatik ezarritako bermea.

**KONTRATISTAREN DELEGATUA**

Enpresak BBUPrekiko solaskide bat izendatu beharko du, bezeroeki harremanetan ibiltzeko sailarekin eguneroko harremana izateko, informazioa zuzentasunez transmititzeko eta zerbitzua emateko (baldintza teknikoen agiriaren hamazazpigarren klausula).